

ISD²⁰₂₁

INTERAKZIONISMO SOZIO-DISKURTSIBOAREN VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA

MINTZAIRA JARDUERA:
IKERKETAK ETA PRAKTIKA
DIDAKTIKOAK MUNDU ELEANIZTUNEAN

Donostia - San Sebastián
2021eko uztailaren 5etik 7ra



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU



eman ta zabal zazu

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea


Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura
Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea



Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico Mundial
Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra



INTERAKZIONISMO
SOZIO-DISKURTSIBOAREN
VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA

ISD 2021

Mintzaira-jarduera: ikerketak eta praktika didaktikoak mundu eleaniztunean

Donostia-San Sebastián, 2021eko uztailaren 5, 6 eta 7

HIRUGARREN ZIRKULARRA (2021eko martxoa)

Pozarren jakinarazten dizuegu ehundik gora izan direla sinposio, komunikazio eta posterretarako jaso ditugun proposamenak.

Lanean jarraitzen dugu kongresua modalitate hibridoan eskaintzeko, hau da, online zuzenean eta aurrez aurre. Aurreikuspen horren arabera egokitu dugu honekin batera bidaltzen dizuegun behin-behineko egitarauaren hezurdura.

Kongresuaren datarako gauzak hobera baldin badoaz Donostian bertan gurekin izango zaituztegunelakoan, eta bestela, egun hauek online partekatuko ditugulakoan, kongresuari eta, bereziki, matrikulazioari buruzko jakingarri batzuk helarazten dizkizuegu hirugarren zirkular honetan.

Halaber, informazio eguneratua aurkituko duzue esteka hauetan:

- Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra (informazioa euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez):

<https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra/aurkezpena>

- Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Uda Ikastaroak (informazioa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez):

<https://www.uik.eus/eu>

Orain arteko zirkular guztiak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta portugesez eskura daitezke web-gune honetan: <https://www.ehu.eus/es/web/mho-unesco-katedra/zirkularrak>

MATRIKULAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Matrikula egiteko epea:

Kongresuan aurkezpenena egingo dutenentzat epe bakarra egongo da: martxoaren 29tik maiatzaren 31ra.

Entzule moduan parte hartzeko matrikulatzeko epea zabalik egongo da kongresuaren egunera arte.

Aurrez aurreko modalitatean parte hartzeko aukera pandemiaren egoeraren eta une bakoitzean ezarrita egongo den aforo-mugaren arabera izango da.

Nork egin behar duen matrikula:

Onartuak izan diren egile guztiek (sinposio, komunikazio, poster...) eman beharko dute izena eta ordaindu beharko dute kongresuaren matrikula. Laburpenetan agertu arren, matrikula ordaintzen ez duten egileen izenak ez dira programan azalduko eta ez zaie agiririk emango.

Komunikazio bat baino gehiago aurkeztuko duenak behin bakarrik emango du izena eta ordainduko du matrikula.

Zer jasoko den matrikularen truke :

Matrikula ordaintzen duenak honakoak jasoko ditu:

- Kongresuan online edo aurrez aurre (aforo-mugaren arabera) parte hartzeko aukera.
- Sarbidea onlineko komunikazioak zuzenean entzuteko.
- Sarbidea alde zuzenetik grabatutako hitzaldiak entzuteko eta bideo-posterrak ikusteko.
- Bere izena kongresuaren egitarauan agertzeko aukera.
- Komunikazioen laburpen-bilduma eskuratzeko aukera.
- Biltzarrean lana aurkeztu izanaren ziurtagiria.
- Entzule moduan parte hartu dutenek, kongresuan parte hartu izanaren agiria.

Matrikularen prezioak:

Bi matrikula mota besterik ez da egongo eta berdina izango da aurkezle zein entzuleentzat:

- Matrikula arrunta: 100 euro.
- Matrikula murriztua ikasle eta langabetuentzat: 50 euro.

Matrikula murriztua egitekotan, horretarako eskubidea dagoela erakusten duen agiria aurkeztu beharko da.

Aurrez aurre parte hartuko dutenei, horretaz gain, ekitaldi sozialean parte hartuko duten galdetuko zaie kongresuan izena emateko orduan.

Nola egingo dira izen-ematea eta matrikularen ordainketa?:

Izena emateko eta matrikula ordaintzeko jarraibideak (matrikula online) web-gune honetan egongo dira: <https://www.uik.eus/eu/isd-2021-vii-congreso-internacional-del-interaccionismo-socio-discursivo>

Erabiltzailea Udako Ikastaroen plataforma horretan erregistratu beharko da prozesuari ekiteko.

Egitarau soziala:

Programatu den egitarau soziala pandemiaren egoeraren arabera gauzatuko da. Hau da aurreikusten den ekimena:

- Bisita gidatua Chillidalekura (<https://www.museochillidaleku.com/eu/>) eta afaria sagardotegi batean (menu tradizionala). Autobusa barne dago.

Parte hartu nahi duenak matrikularekin batera emango du izena eta egingo du ordainketa.

Pandemiaren egoeratik aurrez aurreko ekitaldiak egiterik ez balego, egitarau sozialaren dirua itzuliko zaie ordainketa hori egin dutenei.

Egitarau sozialak prezio bakarra izango du: 85 euro.

Inskripzioa egiteko formularioa:

Kongresuan aurkezpenen bat egingo duten egile guztiak esteka honetan agertzen den formularioa bete behar dute nahitaez: <https://forms.gle/KHiMD1ibgOKp2bPF8>
Inskripzioa egiteko formularioan datu hauek adierazi behar dira:

- Egileen izena.
- Egileen abizenak.
- Erakundearen izena osorik idatzita (ez soilik laburtzapenak).
- Helbide elektronikoa.
- Komunikazioaren, sinposioko atalaren edo poster/grabazio laburraren izenburua.
- Komunikazioa aurkezteko aukeratu den modalitatea: aurrez aurrekoa - online zuzenekoa – online aurretik grabatua – poster/grabazio laburra
- Komunikazioaren hizkuntza.

Entzule modura joan nahi dutenek ez dute formularioa bete behar.

IZANGO DIREN KOMUNIKAZIO MOTAK

Sinposioen formatua:

Sinposioak komunikazio koordinatuz osatutako saioak dira, eta hiru aurkezpen eta eztabaida bat barne hartzen dituzte. Koordinatzaile bat dute, sinposioaren barne-antolaketaz arduratuko dena.

Egitarauan esleitutako eran, sinposio bakoitzari bi orduko tarte eskainiko zaio, eztabaida barne.

Komunikazioen formatua:

Komunikazioak aurrez aurrekoak, online zuzenekoak edo aldez aurretik grabatutakoak izan daitezke. Kasu guztietan egileek 20 minutu izango dituzte aurkezpena egiteko, eta 10 minutu gordeko dira eztabaidarako.

20 minutuko komunikazioa aurretik grabatuta bidaltzen dutenek, aukera izango dute 10 minutuko eztabaidan zuzenean parte hartzeko.

Aurkezteko modalitatea edozein delarik, komunikazio guztiak egitarauan esleitutako ordu tartean izango dira.

Poster/grabatutako aurkezpen laburren formatua:

Sail honetan egingo diren aurkezpen guztiak online eta asinkronoak izango dira, hau da, aurkezpenaren bideoak aldez aurretik grabatuta bidali beharko dira.

Laburpenen ebaluazio-prozesuan poster (poster/grabatutako aurkezpen laburra) modalitatea esleitu zaien egileek 10 minutuko grabazioa bidali behar dute non euren ikerketa aurkezten duten.

Ez dira inola ere onartuko 10 minutu baino luzeagoak diren grabazioak.

Grabazio horrek atal hauek izango ditu:

- Sarrera
- Marko teorikoaren azalpena
- Metodologia
- Emaidzak
- Ondorioak/Eztabaida

Behin betiko egitarauan zehaztuko da grabazio horiek noiz eta nola egongo diren eskuragarri.

LABURBILDUZ: GOGOAN IZATEKO DATAK ETA JAKINGARRIAK

Komunikazioa aurkezten dutenek matrikulatzeko epea: martxoaren 29tik maiatzaren 31ra.

- Entzule gisa matrikulatzeko epea: kongresuaren egunera arte.
- Aldez aurretik grabatutako bideoak bidaltzeko epea: ekainaren 15era arte.
- Aldez aurretik grabatuta bidaliko diren bideoen formatua: MP4 edo MOV.
- Egileek estekan adierazten den gunera igo beharko dute grabazioa formularioa betetzen dutenean: <https://forms.gle/KHiMD1ibgQKp2bPF8>

ANTOLATZAILEAK

Kongresuaren antolatzaileak Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra eta ELEBILAB ikerketa taldea dira, biak UPV/EHUkoak.

Kongresua Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen egitarauaren barruan eskaintzen da.

KONGRESUAREN HIZKUNTZAK

Aurkezpenak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, portugesez eta ingelesez izango dira.

Aldibereko itzulpena egongo da soilik hitzaldi nagusietarako eta Miramar Jauregian izango den solasaldirako.

KONGRESUAREN KOKAPENA

Carlos Santa Maria Zentroa



UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa

Elhuyar plaza, 2

20018 Donostia

[Googe Maps](#)

Miramar Jauregia



Paseo Miraconcha, 48

20007 Donostia, Gipuzkoa

[Google Maps](#)

Donostia – San Sebastián
Hiriaren informazio praktikoa:

<https://www.donostia.eus/ataria/eu/web/info/hasiera>



INTERAKZIONISMO
SOZIO-DISKURTSIBOAREN
VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA

BEHIN-BEHINEKO EGITARAUA

Ordutegia	ARETO NAGUSIA (58 lagun)	1 Gela (12 lagun)	2 Gela (12 lagun)	3 Gela (12 lagun)	4 Gela (15 lagun)	5 Gela (24 lagun)	MIRAMAR JAUREGIA
UZTAILAK 5 astelehena							
8:30-9:00	Ongi etorria						
9:00-9:30	Kongresuaren irekiera (agintarien & ordezkarien agurra)						
9:30 - 10:30	IREKIERA HITZALDIA: <i>Enjeux actuels de l'ISD</i> J.-P. Bronckart & E. Bulea-Bronckart (Genevako Unibertsitatea)						
10:30-11:00	Kafea						
11:00 - 13:30	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	
13:30-15:00	Bazkaria						
15:00 - 17:00	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	
17:00 - 18:00	HITZALDI NAGUSIA:						

	L'Interactionnisme Socio-discursif au Brésil: dialogues et contributions E.Lousada (USP); L. Bueno (USF) & Barricelli (USF) (ALTER-AGE Ikerketa taldea, Brasil)						
18:00tik aurrera	Egitarau soziala						

Ordutegia	ARETO NAGUSIA (58 lagun)	1 Gela (12 lagun)	2 Gela (12 lagun)	3 Gela (12 lagun)	4 Gela (15 lagun)	5 Gela (24 lagun)	MIRAMAR JAUREGIA
UZTAILAK 6 asteartea							
9:00 - 11:30	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	
11:30 - 12:00	Kafea						
12:00 - 14:00	Komunikazioak	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	
14:00 - 15:30	Bazkaria						
15:30 - 17:00	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	
17:00-18:15							SOLASALDIA: Hizkuntza gutxitua eskola eleaniztunean I. Idiazabal (UPV/EHU) & F. Genesee (McGill University)

							Quebec)
19:30							Ongi etorriko ardoa Donostiako Udaletxean

Ordutegia	ARETO NAGUSIA (58 lagun)	1 Gela (12 lagun)	2 Gela (12 lagun)	3 Gela (12 lagun)	4 Gela (15 lagun)	5 Gela (24 lagun)	MIRAMAR JAUREGIA
UZTAILAK 7 asteartea							
9:00 - 11:00	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	
11:00 - 11:30	Kafea						
11:30 - 13:30	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	Komunikazioak	

13:30 - 15:00	Bazkaria						
15:00 - 17:00	Komunikazioak	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	Sinposioa	
17:00-18:00	HITZALDI NAGUSIA: Irakasleen prestakuntza J. Dolz (Genevako Unibertsitatea)						
18:00	Itxiera ekitaldia						





INTERAKZIONISMO
SOZIO-DISKURTSIBOAREN
VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA

BATZORDE ANTOLATZAILEA

Ines M^a Garcia Azkoaga, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Leire Diaz de Gereñu, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Ibon Manterola, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Jean-Paul Bronckart, Ginebrako Unibertsitatea; Itziar Idiazabal, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Eulália Vera Lúcia Fraga Leurquin, GELA/CNPq, Universidade Federal do Ceará (UFC), Brasil.

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Ainhoa Urbieta, Euskal Herriko Unibertsitateko(UPV/EHU) Udako Ikastaroak.

BATZORDE ZIENTIFIKOA

Alicia Santolaria Òrrios, Universitat de València; Ana M. Guimarães, Universidade do Vale do Rio dos Sinos (UNISINOS), Brasil; Anderson Carnin, Universidade do Vale do Rio dos Sinos (UNISINOS), Brasil; Anise D'Orange Ferreira, FCL Araraquara /UNESP, Brasil; Antonia Coutinho, Universidade Nova de Lisboa; Arantza Ozaeta, Mondragon Unibertsitatea; Betânia Passos Medrado, Universidad Federal de Paraíba (UFPB), Brasil; Carmen Rodríguez, Universidad de Valencia; Dora Riestra, Universidad Nacional de Río Negro, Argentina; Ecaterina Bulea-Bronckart, Université de Genève; Eliane Lousada, USP Sao Paulo, Brasil; Enlli Thomas, Bangor University, Gales, UK; Ermelinda Barricelli, USF Sao Paulo, Brasil; Esti Amorrortu, Universidad de Deusto; Eulália Leurquin, Universidade Federal do Ceará (UFC), Brasil; Fernando Ramallo, Universidad de Vigo; Fiona O'Hanlon, The University of Edinburgh, UK; Florencia Miranda, Universidad de Rosario, Argentina; Glais Sales Cordeiro, Université de Genève; Igone Zabala Unzu, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Iñaki García Fernández, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Iris Campos, Universidad de Zaragoza; Itziar Elorza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Jean Paul Bronckart, Université de Genève; Joaquim Dolz, Université de Genève; Jon Casenave, Université Bordeaux Montaigne; Juliana Alves Assis, PUC Minas Gerais, Brasil; Lília Abreu-Tardelli, Universidad Estatal de São Paulo, Brasil; Luci Nussbaum, Universitat Autònoma de Barcelona; Luzia Bueno, Universidade São Francisco, Brasil; Maria Angela Paulino Teixeira, PUC, Minas Gerais, Brasil; Matilde Gonçalves, Universidade Nova de Lisboa; Melina Aparici, Universitat Autònoma de Barcelona (UAB); Montserrat Vilà, Universitat Autònoma de Barcelona (UAB); Pádraig Ó Duibhir, Dublin City University; Regina Celi Mendes Pereira, Universidade Federal da Paraíba (UFPB), Brasil; Roxane Gagnon, Haute École Pédagogique Lausanne; Sandrine Aeby, Université de Genève; Vera Lúcia Lopes Cristovão, Universidade Estadual de Londrina, Brasil.

LAN-TALDEA

Amaia Munarriz, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Ana Aldekoa, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Ane Ortega, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM); Argia Olçomendi, Université Bordeaux Montaigne; Aroa Murciano, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Beñat Garaio, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Claudia Torralba, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Inari Plazaola Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Isabel García del Real, Nafarroako Unibertsitate Publikoa; Jaione Ibarra, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM); Jone Goirigolzarri, Deustuko Unibertsitatea; M^a Jose Ezeizabarrena, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Maider Huarte, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM); Maite Garcia-Ruiz, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Margareta Almgren, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Roberto Mielgo, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM); Saioa Larraza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Tania Barberán, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Urtzi Etxeberria, CNRS-IKER (UMR 5478).



ISD²⁰₂₁ INTERAKZIONISMO
SOZIO-DISKURTSIBOAREN
VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA